

PERSIAKO GOLKOKO GERRAZ GOGOETAK

Egia garratza

Irak indarrez Kuwait-en sartzean hasi zen. 1990.eko abuztuaren 2an gertatu zen. Irak-entzat erraz lortzeko dirua zegoen tartean eta estrategi interesak ere bai.

Bost hilabete ta erdiko elkarrizketak, maila guztietakoak, ez ziren nahiko izan gerra bastertzeko; Kuwait-en askatasunerako, Irak-en egitura militarra suntsitzeko, beste gizarte eta ekonomi interes handiak babesteko gerra... 1991.eko urtarrilaren 17an izan zuen hasiera.

Gaur, 1991.eko urtarrilaren 24ean, oraindik ez da argi ikusten gerraren bilakabidea... Milaka eta milaka hildako, miseria gorria, milioika pertsonaren nahigabeak, gogorkeria ikaragarria... izango direnik ezin uka. Hondamendia gauza ziurra izango da.

Egia esan, ez dago gerrarik zuzengabekeriarik gabe. Eta gerra hau bidegabekoa, ankerra eta gizatasunaren aurkakoa da...

Zorakeriak eta aginteak elkar hartzen dutenean, orduan gizonaren gizatasuna galtzea gauza ziurra izaten da. Hau lehen hala izan zen, orain hala da eta gero ere hala izango da. Zorakeriaz itsuturik eta gainera bere esku botere politiko-militarra duen gizona benetan anker bihurtzen da, bai lehen eta bai orain.

Gaurko zalantzei historiak emandako erantzunak?

Zer egin? Amore eman eta Irak-i bakean utzi Kuwait bere merde duela, gerraren hondamendi honek txarragora jo ez dezan? Erantzuna zaila da benetan! Eta gero zer...?

Hitler-i, hasieran, nazioetan (Polonian, Txekoslovakian, Austrian...) indarrez sartzen hasi zenean, aurpegi eman eta geldierazi balute, gertatuko ote zen inoiz izan den triskantzarik ikaragarriena, II. mundu-gerratean, milioika hildakorekin? Ziur aski hondamendia ez zen hainbestekoa izango.

Beraz, ez al da komeni izango Hussein geldieraztea hondamendi honek txarragora jo ez dezan? Galdera larria benetan!, baina erantzun ziurrik gabea! Zalantza berbera zegoen Hitler-ek nazio ezberdinen aurka bere indarrezko ekintzak hasi zituenean... Hala ere beste nazioek, ahulagoak izanik eta euren arazoa ez bailitzan, ez zitzaizkion jarki... (Hondamendien eragile izan diren bi gizon hauek -Hitler eta Hussein- ez ditut elkarrekin parekatu nahi, hori egitea erraza izan arren...).

Gezurrezko banderak?

Benetako bakezale izatea gauza ederra da eta Ebanjelioarekin guztiz bat datorrena... Bide honetatik jo behar luke gizateriak. Jokaera horren ereduak kristautasunaren santu handi eta askorengan ikusten ditugu, baina baita beste gizon batzurengan ere, adibidez, Gandhi-rengan, Martin Luther King-egan eta abarrengan.

Baina hamaikatxo gezur da bakezaletasunaren izenean! Euskadi eta Espainiako jendeak, euren komunikabide ugaritan, ez al dira faltsukeriaz, arinkeriaz eta demagogia merkez janzten? Bakezaletasuna baino gehiago Amerikaren aurkako lehia ez ote da nabari askorengan?

Hemen Euskadin ere, alde batetik bakearen aldeko agerpen ugari egiten den bitartean, bestetik, zuzenki nahiz zeharka, gogorkeriaren eta indarraren aldeko joera nabari da askorengan. Antimilitarista beste nazio batzuri buruz eta militarista etxean? Ez al du egin beste horrenbeste Felipe Gonzalez-ek «terrorista» alde latinamerikar gobernuen arteko elkarrizketen aldeko aholkua emanaz, baina etxean horrelakorik entzun ere nahi ez duela?

Bakoitza bere buruaren jabe da eta nahi duenaren alde egin dezake; baina tamalgarria da hainbeste gezur eta iruzurrez baliatzea.

Gaur Euzkadi, USA-ren laguntzaren bitartez bere askatasun osoa hartzeko eran balego «independentistak» direla diñoenak laguntza horren aurkako protestak egingo luke?

Espainiako komunikabide asko (batez ere irratiak) eta hainbat politikari antimilitarista eta bakezale amorratu bihurtu dira eta, euren buruak aurrerakoi gisa agertuz, hitzarmen eta elkarrizketaren alde daude. Baina, Euskadiko Lehendakariak, gaur, bere nazioaren askatasun osoa (independentzia) aldarrikatuko balu, komunikabide guzti horiek, politikariak, militarrek eta abar, euren arma bakartzat elkarrizketa erabiltzeko ainako bakezale eta antimilitarista agertuko ote lirateke? Ondo dakigu horiek iragarririk dutela, kasu horretan, Euskadi armaz eta indarrez hartzea... Jakina!

Beraz, bakezale amorratua inoren lurraldean, urrunean eta militarista norbere lurraldean? Noranaikoa da, benetan, kazetari askoren eta hauen komunikabideen bakezaletasuna?

Hamaikatxo militarista eta indarkeriazale agertzen zaizkigu gaur bakezale-jantziz! Hamaikatxo faxista eta diktadore demokrata antzera! Hauxe da Ekialdeko herrialdeen oraintsuko kasua, guztiok ondo dakigunez... Baina orain arte zer esaten zen eta nola mozorrotzen ziren propaganda egiterakoan?

Eta gure Euskadin?

J. Urkiza
(1991-I-24)